





izateari buruzkoa, bai eta jarduera bera finantzatzeko eskatutako eta/edo jasotako beste laguntza batzuei buruzkoa ere.

Era berean, adierazi du egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta, nolanahi ere, baimena eman dio Gernika-Lumoko Udalari inguruabar horiek ziurtatzeko bere kabuz.

III.- Bizkaiko Bertsozale Elkarteak legez eraturik dagoela (IFZ zk.: G-48553242 / helbidea: Zabale kalea 9-atzea-behea / 48200 Durango - Bizkaia), Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro ofizialean aintzat hartuta.

IV.- DLoren 28.1 artikularen arabera, hitzarmenak izango dira aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

V.- Diru-laguntzei buruzko indarrean dagoen udal-ordenantzen 35. artikulua udal diru-laguntza nominatiboak emateko prozedura arautzen du.

Aurrekoari jarraiki eta espedientean dauden txostenen arabera, Alkatetza honek **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- Bizkaiko Bertsozale Elkarteari (IFZ zk.: F-95222816) 14.500 euroko diru-laguntza nominatiboa ematea, Gernika-Lumoko udalarekin elkarlanean "Gu ere bertsoan" programa udalerriko irakaskuntza zentroetan garatzeko 2023-2024 ikasturtean zehar, dagokion hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.

Bigarrena.- Erakunde horrekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea, espedienteari erantsitako proposamenaren arabera. Nolanahi ere, hitzarmen hau eraginkorra izan dadin, bi alderdiek hitzarmen hori sinatu beharko dute 10 eguneko epean, ebazpen hau ematen denetik aurrera zenbatuta.

Hirugarrena.- Laguntza hau bateragarria izango da jarduera bera finantzatzeko beste edozein laguntza edo laguntzarekin, baina inola ere ez da egongo gain-finantzaketarik.

Bosgarrena.- Diru-laguntza hori Gernika-Lumoko Udalaren 2023ko gastuen aurrekontuko 5-3354-48106 partida ekonomikoaren kargura ordainduko da.

Ordainketa entrega bakarrean egingo da, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen hau ematen denetik zenbatzen hasita.

Seigarrena.- Diru-laguntzaren xede den egitasmoa garatzeko epea 2023-2024 ikasturtea dela kontuan hartuta, ekainaren 30ean bukatu eta hilabeteko epean, uztailaren 31rako, erakunde onuradunak justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko du, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera. Kontu horretan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra





(887/2006 Errege Dekretua) garatzen duen Erregelamenduaren 75. artikuluan aipatzen den informazioa jasoko da.

Zazpigarrena.- Era berean, honen berri emango zaie Udal Kontuhartzailtzari eta Diruzaintzari, eta legez ezarritako publizitatea emango da Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, legeak xedatu moduan.

Gernika-Lumon, 2023ko irailaren 7(e)an erabakia.

ALKATEA

-Jose M^a Gorroño Etxebarrieta-

